



Oinarrizko baliabideak

- ***Kapitala (ekarpenak):*** Gure enpresaren kapitala bazkieen ekarpenak osatuko dituzte; kooperatiba bat gara.
- ***Dirulaguntzak:*** Andoaingo udalak hainbat ekintza burutzeko laguntza ekonomikoa emango digu, adibidez, umeentzako erakusketak, tailerrak, jolasak eta beste jarduera batzuk antolatzen ditugunean. Laguntza horien bidez, udalaren helburua herriko bizitza soziala eta kulturala aberastea da, bereziki txikienentzako ekintzak sustatuz. Dirulaguntzek, gainera, baliabide materialak eta logistikoak ere eskaintzen dituzte, jarduerak modu egokian eta seguru batean burutu ahal izateko, eta, horrela, herriko familiei aisialdi eskaintza erakargarria eta hezigarria eskaintzen die.
- ***Crowdfunding:*** Crowdfunding online bidez egiten den finantziazio kolektiboa da. Gure enpresa garatzeko eta aurrera eramateko aukera egokia da. Bultzada ekonomiko bat lortzea da helburua, donazioak egiten duten pertsonen, enpresaren parte hartzeko eskubidea izango dute, recopensa txiki batekin.
- ***Inbertsoreak:*** Enpresaren garapena eta hazkundera bultzatzeko, kanpoko inbertsoreen partaidetza oso lagungarria izan daiteke. Inbertsoreek, kapital-ekarpenak eginez, gure proiektuari finantzaketa ematen diote, eta horren truke, enpresaren etorkizuneko etekinen parte bat jasotzeko eskubidea lortzen dute. Inbertsore egokiak aurkitzea funtsezkoa izango da proiektua arrakastaz garatzeko eta merkatuan lehiatzeko ahalmena izateko.
- ***Banku-mailegua:*** Bankuari dirua eskatzea gure enpresa sortu ahal izateko, baina kontuan izan behar dugu diru hori itzultzean interesen ondorioz kopuru handiagoa itzuli beharko diogula. Mailegua jasotzen dugunean, bankuak finantza-baliabideak eskainiko dizkigu hasierako inbertsioa egin ahal izateko, baina ordainetan, hileko kuotak eta interesak kalkulatuak izango dira, mailegua epe jakin batean osorik itzuli arte.
Mailegua jasotzea aukera ona izan daiteke gure negozioa abian jartzeko, baina erabaki arduratsua izatea garrantzitsua da, gure ahalmen ekonomikoa kontuan hartuz, zorra epe barruan eta baldintza egokietan itzuli ahal izateko.